

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko apirilaren 12a, VIII. urtea, 2.208. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Adunara doan errepideak sei metroko zabalera izango du

Gipuzkoako Foru Aldundiak GI-3021 errepidea hobetzeko proiektua onartu du; hiru hilabeteko epean egin beharko dute ◻3



552.000 euroko aurrekontua du proiektuak. E. MAIZ



E. MAIZ

→ **Asteasu-Zizurkil arteko bidegorria, bukatzeaz.** 550 metroko zatia falta da bi herriak lotzen dituen oinezkoentzako eta txirrindularientzako bidea bukatzeko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak enkantera atera du. Burrustiko inguruan dagoen igoerako azken zatia da bidegorria bukatzeko falta den bakarra. ◻3

Nekazaritza biziberritzeko konpromisoa hartu du EHNEK

Sindikatuak 'Baserria osasun iturri' lelopean batzarra egin du Tolosan; Bego Aristi tolosarra lehendakariorde izendatu dute ◻2

Mungia Racing taldeko Rafa Ateak irabazi du IV. Ñañarri rallysprinta

Ibarrako Markos Landa gidariak eta Joseba Iturrioz gidari laguntzaileak proba utzi behar izan zuten lehenengo txandan motorra hautsi eta gero ◻7



ZURRIOLA IKASTOLA L.K.E.

Barandiaran Lizeoa

Barandiaran Lizeoa
Manuel de Lardizabal 26
(Ibaeta auzoan)
tel 943272587
zurriola@ikastola.net

GORPUTZ-KIROL EKINTZEN SUSTAPENA
Goi mailako heziketa zikloa
Ate irekiak: Apirak 14, 18:00 etan
Maiatzak 25, 18:00 etan



EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

Erregimenak ez dira diru errenta etortzen aurkitzen onenak. Baita ere, aukeratu behar dituzte!

- Internetaz egiteko, www.gipuzkoa.net web gurea izan behar duzu, eta bertan...
- Nekazaritza, lehenetaz, hitzordu eskatu behar duzu telefonoz edo internet bidez. Eskerri egitea...
- Aldundik eskero badi duzu, **autobideko proposamena** buruzko, telefonoz edo internetaz...
- Aldundia gurea beldu edo beste beldu egiten badu...

EUSKARAZ NAHI DUZULA ADIERAZ DEZAKEZU





Topic-eko aretoan izan zen igandeko batzarra. HITZA

Baserriaren eta herriaren arteko zubiak berreskuratu nahi ditu EHNE sindikatuak

Gipuzkoa osoko 70 nekazari bildu ziren sindikatuak igandean antolatu zuen batzarrean

Itzea Urkizu

Gipuzkoako EHNEk seigarren batzarra egin zuen pasa den igandean, Topic-en. Bertaratutako afiliatuak, aho batez onartu zuten *Baserría osasun iturri* lelopean aurkeztu zuten txostena.

Ponentzia honek hainbat berrikuntza ekarriko dizkie sektoreko langileei, izan ere, baserriarren sindikatuak «datozen hiru urteotarako inflexio puntua» ezarri nahi du, «nekazaritzaren sektorea biziberritzeko formulak aurkitzeko konpromisoa hartuz».

Sindikatuak arduradunek diotenez, Europar Batasunak eta gainerako erakundeek nekazaritzaren sektorean ezarritako ereduak «porrot egin du», eta honek bultzatu ditu eredu berrien bila.

Erakunde publiko desberdinek nekazaritza eredu intentsiboa proposatu zuten, eta honek lanpostu galera «izugarria» ekarri du lehen sektoreran, EHNEkoen arabera: «Honen aurrean, guk geuk aurrea hartzea egokiena dela pentsatu dugu». Horretarako, baserriar guztien errealitate eta eguneroko egoerak kontuan izan dituzte, «baserriarrek inoiz baino batuago egon behar baitute».

Besteak beste, Gipuzkoako EHNEko kideek ezinbestekotzat jo dute lurralari lotutako nekazaritza egitea, eta era berean, herriari lotutako nekazaritza ere egitea: «Herria oso-oso gertu dauka baserriarrek, baina askotan ez du harremanik izaten herriarekin; harremana eten egiten da». Beraz, baserriarren eta kaletarren artean etendako zubiak berreskuratu nahi ditu sindikatuak: «Jendeak ez du beti baserriko lanak eskaintzen duen gutzia baloratzen. Azken batean, baserriak onura asko eskaintzen ditu: kalitatezko elikagai freskoak, biodibertsitatea-

ren zaintza, arrisku naturalen prebentzioa, eta abar». Honegatik guztiagatik, nekazariak garbi azaldu nahi dizkiote gizarteari, euren sektoreak dakartzan onura guztiak. EHNE sindikatuaren zatitza baserría eta bertako lana beharrezkoa da, eta horregatik diote osasun iturria dela.

Hurrengo urteetako erronka

Datozen hiru urteetarako erronka moduan hartu du EHNE sindikatuak *Baserría osasun iturri* txostenaren edukia: «Onartutako ponentzia azken hilabeteotan sindikatuan izandako hausnarketa prozesu sakon baten ondorioa da, eta batzar orokor honen aurretik, bailara desberdinetako nekazariak bildu dira».

Horrekin batera, sindikatua antolamendua berritu dute, eta Bego Aristi tolosarrak lehen-dakariorde postua hartu berri du. Era berean, Axier Aristi, Iñaki Sorrairain eta Amelia Jauregi ere exekutibako kide izango dira aurrerantzean.

• tolosa@hitza.info

Erradiaktibitatea eta bizidunak



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Japonian gertatutakoaren harira eta zutabe hau eguneratu dagoela erakutsiz, egoki iruditu zait erradiaktibitateaz idaztea, izan ere, erreadiaktibitateak zeta ni bezalako bizidunengan kalte nahiko larriak eragin ditzake.

Laburki esanda eta terminologia oso konplexurik gabe, erradiaktibitatea, konposatu kimiko berezi batzuk eragiten dute.

Konposatu hauek gai dira zeta eta nigan barneratzeko eta geure geneetan sartzeko. Zure eta neure geneetan 'idatzia' dago gure kanpo eta barne itxura, izaeraren zantzu batzuk eta zerbait gaixotasun pairatzeko dugu sentsibilitatea.

Konposatu erradiaktiboa gure geneetan sartzean, 'idatzitako' hau 'berridatzi' daiteke, honek, minbiziak bezalako gaixotasunak sor ditzakeelarik. Are gehiago, konposatu hauek, amaren sahelean dagoen haur bati sartzan bazaizkio, gaixotasun larriez gain, deformazioak ere sor ditzakete. Erradiaktibitateaz eralda-

tzen diren bizidunak, mutante izenez ezagutzen dira.

Irudi nahiko gogorrek badaude Interneten zehar, Chernobil-eko gertaeraren ostean agertu ziren, animalia, landare eta gizaki mutanteenak: beso eta hankarik gabeko zakurrak, bi buruko arrainak, begi bateko haurrak...

Orain urte batzuk, Zumaiaiko flysch famatuan egon nintzen. Bertako harri geruzak oso ikerituek izan dira, eta diotenez, zenbait geruzatan erradiaktibitate tasa ohikoak baino altuagoak antzematen omen ziren. Geruza horiek datatu zirenean, ohartu ziren Chernobileko ezbeharrak izan eta hurrengo urtekoak zirela.

Chernobil, Japonia... urrun daudela iruditzen zaigun arren, planetako bizidun orok atmosferara bera arnasten dugu eta ur bera edaten dugu. Ikusten duzuen bezala, ez da txantxa erradiaktibitatearen kontua. Hala ere, baditugu inguruan erradiaktibo ez diren konposatuak eta eragin antzekoa izaten dutenak: amiantoa, meta-nola... Agian, Japoniatik datozen erradiazioak kezkatu aurretik, erretzeari uztea planteatu beharko genuke.

Artikulu dramatiko honen ostean, jakin ezazue zuen eskura nauzuela hitzaldi, ikastaro edo bestelakoak eskaintzeko, horretarako bioaniztasunetik@hotmail.com helbidera idatzi eta kito. Facebook-en ere hor gaude eta nola ez, bloga ere martxan dago <http://bioaniztasunetik.blogspot.com>. Nuklearrik?

Topic-en zinea izango da Aste Santuko oporretan

Filme guztietarako sarrera eta bonuak Leidor aretoko leihatilan izango dira eskuragarri

I. Urkizu

Aste Santurako programatu berri duten zine egitarauaren barruan, Topic-eko aretoan pelikula ikusteko aukera izango da.

Leidor eta Topic-eko filmeen egitarau osorako bonu bakarra izango da, eta bonu horrekin zine saio guztiak ikusi ahal izango dira. Topic-eko eserleku kopurua

250ekoa denez, bonuak eta sarrerak alde aurretik erosteko aukera izango dute ikusleek, eta horretarako Leidor aretoko leihatilara joan beharko da, hilaren 14tik 22ra bitarte, edo zine saioen aurretik. Bonuek 8 euroko prezioa izango dute, eta gaueko pelikulak ikusteko balio duen bonuek, berriaz, 6 eurokoa.

Horrela, haurrei nahiz helduei zuzendutako filmak izango dira ikusgai: *Río, Gnomeo y Julieta*, *Esta abuela es mi padre*, *Torrente 4*, *Therese*, *Nunca me abandonas*, *Bienvenidos al sur*, *When you're strange*, *The fighter* eta *Los chicos están bien*.

• tolosa@hitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@Gizarte sareak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA gizarte sareetan ere jarrai dezakezu. Facebooken, esaterako, 1.818 lagun ditu eskualdeko egunkariak, eta guztiak berriak izaten dituzte eskualdeko berriak uanean. Twitter sarean ere aurki dezakezu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Egin zaitze eskualdeko egunkariaren lagun eta jaso itzazu azken orduko albiste, argazki eta bideoak seguituan.

www.tolosaldea.hitza.info

Arozenatarren kontzertua izango da bihar, Irrintzi Elkartearen

19:30ean hasiko da, eta sarrera doan izateaz gain, herritar guztientzat atek zabalik izango dira

E. Maiz Villabona

Bihar, hilak 13, Arozenatarren kontzertua izango da Irrintzi Elkartearen. Aitor, Urko eta Xanet izango dira, eta txistua, gitarra, perkusioa eta umorea izango dituzte lagun. Oinarrian txistularien betiko dantzarako eta kontzertuetarako errepertorioa hartu dute, baina perkusioa eta gitarra klasikoaz ornitutako emaldia eskainiko dute, umore pixka batekin. Arozena txistuaren munduan abizen ezaguna da. Aitor, Urko eta Xanet txistulari familia honetako laugarren belaunaldia dira. Gazte-gaztetatik txistu ikasketak hasi zituzten Oartzunen, lehen irakaslea, Juanito Arozena, aita, izan zuten.

Herrira doan errepidea zabaltzeko eta hobetzeko proiektua onartu dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak eraikitzeko proiektua onartu du, eta 552.000 euroko aurrekontua izango du

Eneritz Maiz Aduna

Adunako herrira doan errepidea (GI-3021) zabaltzeko eta hobetzeko proiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Adunako Udalaren eskariz, besteak beste, errepidea zabaldu egingo dute.

552.000 euroko inbertsioa izango da, eta obra guztia egiteko epea, hiru hilabetekoa izango da. Diputatuen Kontseiluak eman du onepena Adunako herrigunera doan GI-3021 errepidea zabaltzeko eta hobetzeko proiektuari.

Sei metroko zabalera

Proiektuaren arabera, gaur egun, hiru eta lau metro arteko zabalera duen bide zatia, sei metroko gutxieneko zabalera eman arte, zabaldu egingo dute.

Horrez gain, bihurguneetan be-



Bidegurutzetik herrigunerako zatian egingo dituzte konpon keta lanak. E. MAIZ

har diren zabalguenak egingo dituzte. Eta peralteak eta bermeak egokituko dituzte, errepideari behar bezalako ziurtasuna emateko.

Zehazki, 0,240 kilometro puntutik, 0,780 kilometro puntura, 0,5

kilometro egokituko dituzte. Horrekin batera, eta Adunako Udalak bere gain hartuz, bi metro zabalera espaloia egingo du bertze lanak hasiko diren 0,240 kilometro puntutik hasi, eta Kamion egingo den urbanizazioari-

no iritsiz. Udalak eskaera egin zutenetik luze jo badu ere, eraikitzeko proiektuari onepena eman diote.

Hala ere, hilabete batzuk gehiago itxaron beharko dute lan hauekin hasi ahal izateko.

Asteasu-Zizurkil bidegorriari bukaera emateko falta den zatia egingo dute

550 metroko zatia falta da bi herriak lotzen dituen bidea bukatzeko; obrak enkantera atera dituzte

E. Maiz Asteasu-Zizurkil

Asteasu eta Zizurkil herriak lotzen dituen bidegorria guztiz bukatutzat emateko falta den zatia enkantera atera du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Burrustiko inguruan dagoen igoerako 550 metroko bide zatia baino ez da falta bukatuta geratzeko.

Bere garaian bidegorriaren trazatua lursailak eskuragarri zeudelako egin gabe gelditu zen 550 metroko zati hau, eta orain hain zuzen ere, zati horretan gauzatuko da hobekuntza proiektua. Arazoa konpondu ondoren, hasierako proiektuan zehaztutako bidegorria gauzatuko da. Asteasu ibaia bazterrarri jarraituz, 1,725 eta 2,275 kilometro puntuen artean, hain zuzen ere.

Trazatua berriaren luzetarako profila laua da, eta proiektua gauzatzen denean 3,2 kilometroko bi-



3,2 kilometroko ibilbidea osatzeko falta den 550 metroko zati hau egokituko dute. E. MAIZ

degorria osatuta geldituko da Asteasu eta Zizurkil artean. Horrez gain, Asteasuko sarreran dauden industria pabilioiak ere lotuko ditu, enpresa horietan lan egiten dutenentzat mugikortasun iraunkorra ahalbidetuz.

Obrak egin zirenean, herri bidea baliatuz, aldi bateko erabilera emanez, bidegorria erabiltzeko

moduan egon da. Baina bide zati berria egiten denean, gaur egun go behin-behineko zatiak, aldapa handiko herri bideetatik doanak eta inguruko baserrietarako motordun trafikoarekin partekatzen denak, bidegorri izaera galduko du.

Gainera, orain arteko bideak baserrietako bizimoduan izan

duen eragina murriztu egingo da, asko ugartu baitira oinezkoen eta txirrindularien joan-etorriak baserrietako atarrietan.

Asteasu-Zizurkil bizikleta bidea ibai ertzetik eta nekazaritza lurretatik igarotzen da. Oinezkoek nahiz txirrindulariek erabili ahal izango dute. Hiru metroko zabalera izango du, eta oro har,

profila laua da, malda handiagoa duen zati labur batean izan ezik.

Bi herriak lotzen dituen bidegorriaren ibilbide guztian argiak izango dira.

447.473 euroko aurrekontua

Garapen Iraunkorreko Sailaren ekimenez, Asteasu-Zizurkil oinezkoen nahiz txirrindularien bidearen trazatua hobetzeko proiektu lanak lizitazioz kontratatzeko baldintza agiria atera dute.

Halaber, kontratazio eta esleipen espedientea ere onartu du, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, eraikuntza enpresa interesatuek proposamenak aurkez ditzaten.

Enkantera atera den aurrekontua 477.473 euro da, BEZ barne, eta Garapen Iraunkorreko Sailak finantzatuko du. Lanak egiteko epea lau hilabetekoa izango da, eta azarorako amaizua izatea aurreikusten da.

Iragarki laburrak

GARBIKETA

■ **Auxe Garbitasunak.** Alfontzako, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaudete. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04ra (Gurutze).

Kirolak

↓ **Emaitzak**

PILOTA
BINAKAKO
TXAPELKETAREN FINALA

Bigarren maila	
Olaetxea-Albisu	22
Gorka-Merino	16

SASKIBALOIA
LEHEN MAILA
Hamalagarren jardunaldia

Take Bidebide Ibizia	47
Mondragon Unibertsitatea	63

ARETO FUTBOLA
NAZIONAL A MAILA
26. jardunaldia

Atlético Aretxabaleta	5
Lauburu Ibarra	4

NAZIONAL B MAILA
26. jardunaldia

Bilbo F.S.	6
Irish Pub Sheperd's	0
Laskorain Ikastola	4
M. Petronor	3
Transportes Lakunza	7
San Jorge Santurtzi	5

Sailkapena

1. Concepto-Createch (70 p.)
2. Laskorain Ikastola (56 p.)
10. Irish Pub Sheperd's (30 p.)
11. Transportes Lakunza (28 p.)

EUSKAL LIGA
26. jardunaldia

Tolosala Hirukide	7
Lagun Onak F.S.	1

FUTBOLA
ERREGIONAL OHOREZKO
MAILA
29. jardunaldia

Tolosa	0
Real Union Club	1

ERREGIONAL PREFERENTEA
27. jardunaldia

Orioko	2
Intxurre	0
Elgoibar	2
Tolosa 'B'	2

Mikel Olaetxeak eta Jon Ander Albisuk irabazi dute Binakako Txapelketa

Lizartzarrak egun borobila izan zuen; finalean 13 tanto egin zituen, horietatik 6 gantxo

M. Ugartemendia Lizartza

Mikel Olaetxeak eta Jon Ander Albisuk bigarren mailako Binakako Txapelketako finala irabazi zuten, pasa den larunbatean, Beotibarren. 22-16 irabazi zieten gi-

puzkoarre, Gorka eta Merino I.ari. 800 lagun inguru zeuden pilotalekuan, eta izugarriko giroa jarri zuten. Lau pilotariet ikusle- en babesa jaso zuten.

Olaetxea izan zen partidako protagonista, eta bere ezker gantxo erabakigarria izan zen garai-pena lortzeko. Lizartzarrak egun borobila izan zuen. 13 tanto egin zituen, horietatik 6 gantxo. Albisuk ere Merino I.a mendean hartzea lortu zuen.

Asegareko bikoteak hasieratik erakutsi zuen partida irabaz-

teko aukerak zituela. 6-0 aurreratu baitziren markagailuan. Pilota aldatetarekin urdinek partidari buelta ematea lortu zuten, eta pixka bat gerturatzea lortu zuten, 14-13 jarri arte.

Orduan, Mikel Olaetxeak indarrak atera, eta bere eskarmentua erakutsi zuen. Bera baitzen lau pilotarien artean, profesioaletako final bat irabazia zuen bakarra. Momenturik zailenetan, Olaetxeak gantxo egindako tantuekin markagailuan aurrera egitea lortu zuten gorriek. Gorkak ez zuen

partida ona egin. Ezin izan zituen Oletxearen erasoak erantzun, eta bere huts baten ondorioz lortu zuen bikote gipuzkoarrak txapela. Azkenean, 22-16 irabazte lortu zuten.

Olaetxeak eta Albisuk txapelketan zehar hiru aldiz galdu zuten Gorkaren eta Merino I.aren aurka, baina finalean errebantxa hartu zuten.

Finalaren ondoren, bikote gipuzkoarrak beraien lagun eta senitartekoarekin ospatu zuten garapena.

Eskolarteko igerilariak maila ona eman dute Gipuzkoako Ligan

Ekain Agote bere mailako igerilari onena izan zen: 100 metro tximeleta eta 100 metro estiloak irabazi zituen

I. Garcia

Lasarten jokaturako Gipuzkoako eskolarteko ligaren laugarren jardunaldian emaitza onak lortu zituzten eskualdekoek. Tolosako Hirukide, Samaniego eta Laskorain ikastola; Villabonako Jesusen Bihotza ikastola eta Fleming eskola, Adunako Eskola eta Irurako Ikastolako igerilariak parte hartu zuten. Eskola hauetako igerilariak Tolosaldea IKTrekin prestatzen dira.

Emaitzei dagokionez, Ekain Agote (Jesusen Bihotza) bere



Usabalen jasotzen dituzte entrenamenduak eskolarteko igerilariak. HITZA

mailako igerilari onena izan zen eta 100 metro tximeletan eta 100 metro estiloetan gailendu zen. Unai Arruabarrena (Jesusen Bihotza) 50 metro tximeleta proban irabazi zuen. Julen Urretabizkaia (Irurako Ikastola) bigarren

izan zen 50 metro tximeletan eta bosgarren postua lortu zuen 400 libreetan. Kaiet Agotek (Jesusen Bihotza) tximeleta proban parte hartu zuen.

Nerea Rodriguezek (Jesusen Bihotza) 50 metro tximeleta eta

400 metro libreetan parte hartu zuen eta azken honetan seigarren egin zuen. Xabier Beitiak (Samaniego) seigarren egin zuen 50 metro tximeletan eta 400 metro libreetan parte hartu zuen. Ander Arruabarrenak (Jesusen Bihotza) 100 metro tximeleta eta 100 metro estiloak egin zituen. 100 metro estiloetan parte hartu zuten ere Leire Erbitik (Leitzako Ikastola), Jon Urdangarinek (Laskorain ikastola), Iñaki Beitiak (Samaniego), Pablo Urangak (Hirukide), Kepa Oiartzunek (Adunako eskola) eta Beñat Urruzolak (Laskorain ikastola).

Maite Elizegik (Hirukide) eta Zuriñe Iglesiak (Hirukide) 50 metro tximeletan eta 400 metro libreetan parte hartu zuten. Asier Mujikak (Irurako Ikastola) eta Beñat Intzak (Jesusen Bihotza) tximeleta estiloan aritu ziren. Irati Puyadenak (Jesusen Bihotza) eta Eider Urrizak (Fleming ikastola) lehenengo aldiz parte hartu zuten 50 metro tximeletan eta 400 metro libreetan.

🎯 **Hilberriak**

MIGUEL ANGEL PRIETO ARMENDARIZ

Oihana Prieto lankidearen aita

Une latz hauetan bat egiten dugu Oihana eta sendiarekin saminarekin

Goierriko Hitza, Goierritarra eta Otamatzeko lankideak

MIGUEL ANGEL PRIETO ARMENDARIZ

Zuekin gaudе momentu gogor hauetan

Oihanaren koadrila

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Asier Gallego pultsularia ahalegin betean. HITZA

Danena-Olaederrakoak garaile, Euskadikoan

Gipuzkoak irabazi zuen junior mailako lehia eta bertako pultsulari guztiak eskualdeko taldekoak ziren

I. Garcia Zizurkil-Villabona

Danena-Olaederrako pultsulariak emaitza onak lortu dituzte azken txapelketetan. Larunbatean Villabonan jokatu zen Euskadiko Junior Txapelketan, Gipuzkoa izan zen garaile. Danena-Olaederrakoak ziren bertako pultsulari guztiak: Igor Sasiain, Iker Hernandez, Adrian Sasiain, Kellyam Quintana eta Asier Gallego. Banakako sailkapen orokorrean Igor Sasiain eta Iker Hernandez izan ziren lehenengo eta bigarrena. Espainiako Junior Txapelketa A Coruña izango da, hilaren 30ean. Bestalde, Asier Gallego Espainiako selekzioarekin entrenatuko da Aste Santuan.

Espainiako Kluben Arteko Txapelketan, 18 urte azpiko mailan, ezin izan zuen parte hartu Danena-Olaederrak, azken unean pultsulari bat falta zitzaielako.

Banakako sailkapenean, Asier Gallego hirugarren postuan sailkatu zen 1996. urteko mailan, 7 kilotan bere marka hobetuz. Kellyam Quintana 6. postua lortu zuen, 5 kilo hobetuz; eta Adrian Sasiain 8. gelditu zen, bere marka 2 kilotan hobetuz. Joseba Arratek bere markak mantendu zituen.

Nagusitasuna Gipuzkoakoan

Gipuzkoako Junior Txapelketan erabateko nagusitasuna erakutsi zuen eskualdeko pultsulariak: 56 kiloko mailan, Kellyam Quintana lehenengo postuan eta Sofyam Rochdi bigarren; 62 kiloko mailan, Asier Gallego lehen postuan; 69 kiloko mailan, Igor Sasiain lehenengo postuan, Iker Hernandez bigarren, Adrian Sasiain hirugarren eta Ibon Eguzkiza laugarren; eta 77 kiloko mailan, Daniel Lopez lehenengo izan zen.

Banakako sailkapen orokorrean Danena-Olaederrakoek esku-ratu zituzten lehen bost postuak: Igor Sasiain (318 puntu), Iker Hernandez (308 puntu), Adrian Sasiain (245 puntu), Kellyam Quintana (244 puntu) eta Asier Gallego (241 puntu).

Laskorainek garaipen borrokatua lortu du

Tolosarrek 4-3 irabazi zieten Gallartako Meatzari taldeari eta bigarren doa sailkapenean

Gorka Amatrain Tolosa

Pasa den astean liderraren etxean amore eman eta gero, partida zaila zuen Laskorainek jardunaldi honetan. Sailkapenean lau puntura eta laugarren postuan kokatuta, ligaren azken txanpa

honetan aparra bezala gora doan taldea da Meatzari eta hiru puntuak etxean eusteko gogotik egin behar izan zuten lan ikastolakoek.

40 minutuetan iraungo zuten errotikoek eta azken unera arte ez zen erabaki partida. Tolosarrek sartzen zuten gol bakoitzeko, beste batekin erantzuten zuten aurkariak. Iturralde sartu zuen garaipenaren gola. Partida amaitzeko geratzen zen minutu apurrean aurkariak egindako erasoaldiei txukun eutsi zien Laskorainek.

Atekek ezustekoa eman du IV. Nañarri Rallysprintean

Faboritoen aurretik lortu zuen garaipena Mungia Racingeko gidariak; motorra hautsi zuen Markos Landak

I. Garcia

Aurreikuspenak apurtu zituen Mungia Racing taldeko Rafa Ateka gidariak IV. Nañarri Rallysprintean, garaipena eskuratu zuen faboritoen aurretik. Hauek baino maila baxuagoko autoa izan arren, irabaztea lortu zuen. Ander Vilariño zen kinieletan agertzen zena rallysprinta irabazteko, baina motorra hautsi zuen eta proba bertan behera utzi behar izan zuen. Atekaren ondoren, Mikel Urkiola eta Angela Vilariño sailkatu ziren.

Erregulartasuna izan zen Atekaren garaipenaren gakoa. Izan ere, hiru txandatan denbora berdina behar izan zuen zirkuitua egiteko: lehenengoan eta bigarrenean 5:59,9 eta hirugarrenean 5:59,8. Mikel Urkiola 7,1 segundora geratu zen. Berea izan zen denborarik onena, hirugarren



Iker Gayosok eta Diego Fernandezek bosgarren egin zuten. A. IMAZ

txandan 5:57,6 egin baitzuen. Angela Vilariñok hirugarren egin zuen 7,3 segundora.

Ibarra Racing taldeko Markos Landa gidariak eta Joseba Iturrioz gidari laguntzaileak proba utzi behar izan zuten. Lehenengo txandan, Abaltzisketara iristen ari zirela, motorra hautsi zitzairen. Iaz bere mailan irabazi zuten eta aurten ezin izan dute emaitza hori erreplikatu.

Antolatzaileek azaldu dutenez, deigarria egin zaie kotxe kopuru handiak proba utzi behar izan zuelako, istripua edo matxura izan

teagatik. Iaz baino jende pixka bat gutxiago izan bazen ere, ikusle asko izan zen proban.

Izurako Ikastolak rallysprintera joandako guztiei eskerrak luzatu dizkie ohar baten bidez. Bestalde, lanean aritu ziren 180 lagun ere biziki eskertu die: «Beste behin, berriz ere, ekinga hau ilusioz aurrera eramateko gaitasuna erakutsi genuen guztiok». Alegia, Abaltzisketa, Orendain eta Amezketako udalei, bolondresei eta baita laguntza eman duten gainontzeko guztiei ere eskerrak eman dizkie Izurako Ikastolak.

380 korrikalarik parte hartu dute XXXIII. Herri Krosean

Eguraldiak lagunduta partehartzea handia izan zen; aurten emakume gehiago aritu ziren korrika

M. Ugartemendia Leizta

Bero handia egin arren 380 korrikalari inguruk parte hartu zuten Leitzako XXXIII. Herri Krosean. Parte-hartzailetako asko herritarrik izan ziren, gainera.

16:15ean umeek eman zituen hasiera krosari. Herriko haur gehinek parte hartu zuten krosean, eta txikienek gurasoen laguntza izan zuten helmugara ailegatzeko. Guztira 180 ume hartu zuten parte. Umeen kategorian izaten dira parteide gehien.

Helduen kategorian, Cherkaoui Mouhsin izan zen helmugara iritsi zen lehen gizonezkoa, Abdelfettah Louajari bigarrena, eta Abdelhadi Habassa hirugarrena. Gizonezkoetan lehenengo iritsi zen leitzarra Iban Urriaga Munarri izan zen.

Emakumezkoetan aipatzeko



Umeen kategorian izaten da parte hartzerik handiena. ASIER IMAZ

da aurten emakumeen parte hartzea, beste urteetan baino handiagoa izan zela. Salima Charki izan zen irabazlea. Atzetik ailegatu ziren Rosi Talavera Garcia, eta Olatz Gonzalez Glaria, hurrenez hurren. Ane Egizabal Llata izan zen helmugara iritsi zen lehen emakume leitzarra.

Krosa zela eta, giro bikaina sortu zen herrian, eta parte hartu ez zuten herritar gutxi horiek kalera atera ziren beraien herritarrek animatzerak. Egun borobila izan zen larunbatekoa leitzarrentzat.



Umeak korrika. ASIER IMAZ



GOIZA	OSTARTEAK
ARRATSALDEA	OSTARTEAK
BEROENA	21°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zailtantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Leaburu-Txarama.** Txarama-ko jai batzordeak bilera egingo du festen inguruan, 19:30ean, Txaramako elkartearen Herriar guztiak gonbidatuta daude.
- **Anoeta.** Herriko festak antolatzeke bilera egingo dute, 19:00etan, udaletxean. Jai batzordeak herriko talde guztiei eta herriar orori deitzen die bertan parte hartzera.
- **Ugarte.** Petritegi sagardotegi-ira iteera antolatu dute Ugarteko elkartetik, hilaren 16rako. Autobusa 12:30ean aterako da plazatik. Joan nahi duenak txarrela Ugarteko Goikoetxea-enean erosi behar du, eta lehenbaila lehen egitea aholkatzen dute antolatzaileek.

Agurrak



Urte askoan!

Inge Vazquez Azkolain (Tolosa).
Atzo 3 urte. Zorionak eta urte askoan! Etxekoan partetik.



Urte askoan!

Iraia Gonzalez Azkolain.
Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Korrika 17, gero eta gertuago

Bihar iritsiko dira Korrikako Euskalakariak Tolosaldera; korrika txikiak ere izango dira

Erredakzioa

Trebiñutik atera eta 1.312 kilometro eginda iritsiko da 17. Korrika Tolosaldera. Asko dira kilometro bat erosi duten eragileak, eta asko, hortaz, euskararen alde korrika egingo dutenak, tar-tean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Korrika Adunatik barrena iritsiko da gainontzeko herrietara bihar, goizeko seiak aldera, eta hortik, Villabona, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra, Tolosa, Alegia eta Ikaztegi-tara joango da. Ikaztegi-tan Korrika pasa eta gero txokolatada egingo dute, eta Alegian, aurretik.

Korrika bihar pasako bada ere, Korrikaren inguruko ekitaldiak egun gehiagoetara zabaldu dira; Adunan, Alegian, Altzon, Amezketan, Anoetan, Areson eta Orendainen izan dira jada euskararen aldeko ekitaldiak, azken bi herrietan Korrika Txikia egin dutelarik.

Gaur bertan Alegian eta Ibarrran egingo dituzte. Zizurkil, Villabona, Tolosa, Lizartza, Anoeta eta Iruran, aldiz, bihar. Zizurkil eta Villabonako gazteak Alkizakoekin batera egingo dute Korrika Txikia. 15:15ean irtengo dira Zizurkilgo Goiko bidegurutzetik, eta Villabonako Zubimusu zubian pasako diete lekukoa billabonatarrei. Ondoren, txokolatada egingo dute.

Tolosan, bere aldetik, 10:00etan egingo dute Korrika Txikia.



Areson Korrika Txikia egin zuten eskolako haurrek pasa den ostiralean. HITZA



Alegian Korrikaren aldeko hamaiketako egin zuten. PATXI RENOBALDES

Trianguloatik bi adar aterako dira. Lehenengoan, San Frantzisko pasealekutik gora Hirukideko ikasleek eramango dute lekukoa beren ikastetxeraino, eta gero, Laskorainekoei pasako diete, hauek ikastolaraino eramango dutelarik. Beste adarra, berriz, Samaniego ikastetxera joango

da. Hango ikasleek, Korreo kale-tik behera Gorritiko zubiraino joanda, ikastetxeraino iritsiko dira.

Asteasun ere egingo dute Korrika Txikia, baina ostegunear, hilak 14. Amezketan ere beranduago egingo dute, ostiralean, hilak 15.

Aipatu behar da, era berean,

↓ KORRIKA 17

IBILBIDEA

- **Aduna.** 06:16. Andoaindik etorriko da.
- **Villabona.** 06:42.
- **Irura.** 06:55.
- **Anoeta.** 07:08.
- **Tolosa.** 07:21.
- **Ibarra.** 07:53.
- **Tolosa.** 08:00.
- **Alegia.** 08:33.
- **Ikaztegieta.** 08:46.

KORRIKA TXIKIAK

GAUR

- **Alegia.** 15:00etan.
- **Ibarra.** 15:30ean Idoiaga plazatik San Bartolome plazaraino.

BIHAR

- **Altzo.** 15:30ean, eskolatik.
- **Zizurkil eta Villabona.** Zizurkil Goiko bidegurutzean abiatuko da 15:15ean. Ondoren, txokolatada.
- **Anoeta eta Irura.** 15:00etan.
- **Tolosa.** 10:00etan Trianguloatik.
- **Lizartza.** 15:30ean. Ondoren, txokolatada.

ETZI

- **Asteasu.** 14:45ean. Ondoren, merienda eta trikitilariak.

ETZIDAMU

- **Amezketeta.** 15:30ean. Ondoren merienda.

Korrika igandean amaituko dela Donostian. Azken kilometroa 12:00etan egingo dute Boulevard-ean eta Tolosaldeko Korrika Batzordeek herriar guztiak animatu dituzte bertan parte hartzera.

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** hitza info
bertako egunkaria

egin zaitetz harpidedun!

902-82 02 01

(Asteagunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean, atzea - 20400 Tolosa

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>